

## Antidoto askea

**H**

alaxe da Beñat. Hone-taz eta hartaz iritzia emateko espaziorik ez zaigu falta. Eskura dugu dena –edo, ustez, eskura jarri nahi digute dena–. Ustez, iritzia emateko. Ustez, askeak garena sinesteko. Ustez, demokrazia baten eraginak edo lorpenak hauexek direla bazkatzeko. Ustez ez ezik, nahita, isilik eta kontent egon gaitezen. Erromako agintari gorenak zirkoa eta oraintsuagoko beste batzuek futbola erabili izan duten bezala, gaur egun, neurri ezberdinetako sareetan harrapatutako hiritarrak ditugu. Ustez libreak direnak. Ustez dakitenak. Ustez aukera egin dutenak.

Baina askatasunaren eta iritzia nork bere eragiten duen irudi ez erreal horren izenean, guk botoiak sakatzen ditugu: hau gogoko dut, beste hau ez, honi buruz hau pentsatzen dut, beste honi buruz ideiarik ez... Eta sarea puztuz goaz, gure iritzi, ideia eta jolasekin.

Bai, Beñatek zioen bezala, sistemari “tranpa” egitea nahiko erraza da (nahi izanez gero). Izan ere, sortuz goazen komunitateak ezagunak (edo) dira eta erraza baita, gogoko gaituztenak edota gorroto, gure alde zein kontra jartzea. Horien iritzia gure iritziaren gainean, bada, ezdeus da (norbere burua engainatzeko estakurua ez bada).

Arazoi berak garamatza engainura baita, tresna berri hauekin libreagoak garena uste badugu. Egia da, mugitzeko aukera handia ematen digutela. Egia, iritzia eman dezakegula. Egia, egia, egia. Baina nora doaz gure egiak? Norentzat dira erabilgarri? Nork legitimatzen ditu?

Nik, herri edo hiri “ez heldu” bezala tratatzen gaituzten sententzia daukat. Esan nahi baita, nire iritzia

DANI BLANCO



Ana Urkiza



Padrón



Sarasola

erabilgarria den neurrian eta erabilera horren berririk ez daukadarik (zuzeneko marketing kanpainak bideratzeaz gain: dela politikoak zein hortz-orearenak, berdin zait), ez naiz esaten den bezain aske.

Iritzia ematen dugun bakoitzean, norbaitentzat baliagarria den informazioa gaude sarean jartzen. Eta zenbat balio du horrek? Preziorik ez daukalakoan gaude baina ez da hala. Eta gu bitartean, konturatu gabe, bozka hemen eta bozka han: batzuen negozioa eragiten; beste batzuei pozik (edo gutxienez, entretenituta) bizi garena aditzera ematen.

Gure iritziak legitimoak izango dira, iritzia emateko informazio “oso” dugunean. Administrazio publikoak gardenak direnean. Nire bizitzeko era kanpainetatik at eratzen dela ziurta dezakedanean. Hiritarrok gobernuaren asmoak “oro” lehen eskutik ezagutuko ditugunean... Beste era batera esanda, benetako eragina izan dezakeen iritzia emateko nire heziketa maila goren mailakoa denean... Horretarako ere prestatuko nautenean.

Bitartean, Beñatek aipatzen zituen “datsegit” eta “desatsegit”-ekin konformatzen garelakoan nago, ustez, gure eskuetan zerbait erabakitzeko eskumena opari dugulakoan, ustez, saregilearen ahalmena gurea delakoan...

Eta honen aurrean ere, idazleak hiru aukera ditu: bere inguruko iritzi positiboarekin konplazentzian bizitzea; iritzi ezkorrek kritikatu eta azken hauek ezabatzen edo, gutxienez, neutralizatzen saiatzea; edo, sarerik gabeko lurralde bat amestu eta hura irudikatzea. Irudimena baita errazen kutsatu daitekeen gaitza eta saregileentzako antidoto aske-rik eraginkorra. ■

Idazleak hiru aukera ditu: bere inguruko iritzi positiboarekin konplazentzian bizitzea; iritzi ezkorrek kritikatu eta azken hauek ezabatzen edo, gutxienez, neutralizatzen saiatzea; edo, sarerik gabeko lurralde bat amestu eta hura irudikatzea